# OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

**Organoa/ Órganoa:** Udalbatza/ *Pleno*

**Deialdia/ Convocatoria:** Lehenengoa / *Primera*

**Bilera mota/ *Tipo de sesión:*** Arrunta / *Ordinaria*

**Eguna/ *Día:*** 2024/05/03 / *03/05/2024*

**Ordua/ *Hora:*** *19:30ean / A las 19:30*

**Tokia / *Lugar:*** Herriko Etxeko Bilera Aretoa / *Sala de Plenos del Ayuntamiento*

**Bertaratuak / *Asistentes*:**

- D. Juankar Unanua Navarro jn. Igantziko Herri Taldea.
- D. Aitor Alonso Esteban jn. Igantziko Herri Taldea.
- Dña. Edurne Huitzi Eratsun and. Igantziko Herri Taldea.
- D. Roberto Txoperena Iturbide jn. Igantziko Herri Taldea.
- D. Gorka Obseo Inza jn. Igantziko Herri Taldea.

**Bertaratu ez direnak/ *No asisten:***

- D. Manuel Telletxea Iparraguirre jn. Igantziko Herria Taldea.
- Dña. Irati Alkorta Garcia and. Igantziko Herri Taldea.

**Idazkaria/ *Secretaria:*** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIAK/*ORDEN*:**

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Elizateako eraikina birgaitzek obra kontratuaren esleipena.
3. Zelena Renovables, S.L.U. enpresak aurkezturiko "Azkua" parke eolikori buruzko udalaren ekarpenak Nafarroako Gobernuko Ingurumen Ebaluazio Atalari helaraztea.
4. Bortzirietako Guztiok Taldea Elkarteari dirulaguntza emateko onespena.
5. Alkate Ebazpenak.
6. Galderak eta eskaerak.

IGANTZIKO UDALA · Karrika Nagusia, 5 · 31790 IGANTZI · ☎ 948 63 77 81 · FAX 948 63 73 01 · e-maila: bulegoa@igantzi.eus · I.F.Z. P3125900-E

Erabakiak/ *Acuerdos:*

**1.- Azkeneko aktaren onespena.**

2024ko apirilaren 15eko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

***1.- Aprobación del último acta.***

*SE APRUEBA POR UNANIMIDAD el acta del pleno ordinario de 15 de abril de 2024.*

**2.- Elizateako eraikina birgaitzeko obra kontratuaren esleipena.**

Ikusirik 2024ko otsailaren 12ko osoko bilkuraren akordio bidez onartu zela "Elizateako eraikina birgaitzeko obra kontratua" arautuko zuen plegua eta lizitazioari hasiera ematea.

Ikusirik 2024ko maiatzaren 3an Kontratazio Mahaiak Elizateako eraikina birgaitzeko obra kontratua ASPROSUR BUSINESS, S.L. enpresari esleitzea proposatu duela (390.000,00 €-tan, BEZa kanpo, 60 hilabeteko berme osagarri igoerarekin eta obra egiteko epeari dagokion 6 asteko beherapenarekin). Hura izan baita puntuazio hoberena lortu duena. Horrela bada, hauek izan dira lorturiko emaitzak:

***2.- Adjudicación del contrato de obra de rehabilitación del edificio Elizatea.***

*Visto que mediante que por acuerdo del pleno de 12 de febrero de 2024 se aprobó el pliego regulador del "contrato de obras de rehabilitación del edificio del Elizatea" y el inicio de la licitación.*

*Visto que con fecha 3 de mayo de 2024 la Mesa de Contratación ha propuesto adjudicar el contrato de obra de rehabilitación del edificio Elizatea a la empresa ASPROSUR BUSINESS, S.L. (por un importe de 390.000,00 €, IVA excluido, con incremento de 60 meses de garantía complementaria y 6 semanas de rebaja sobre el plazo de ejecución de la obra), pues este ha sido el licitador que mejor puntuación ha obtenido. Así pues, los resultados obtenidos han sido los siguientes:*

| **HURRENKERA/ *ORDEN:*** | **IZENA / *NOMBRE:*** | **IFK ZK. / *NÚM. CIF:*** | **B GUTUNAZALA / *SOBRE B* (45)** | **C GUTUNAZALA / *SOBRE C* (55)** | **GUZTIRA / TOTAL** |
|---|---|---|---|---|---|
| 1º | ASPROSUR BUSSINES, S.L. | B71037675 | 35,00 | 55,00 | **90,00** |
| 2º | CONSTRUCCIONES DIAZ GARCÍA, S.L. | B31226434 | 41,00 | 44,70 | **85,70** |
| 3º | I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L. | B71143911 | 22,00 | 24,04 | **46,04** |

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko, apirilaren 13ko, 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluko 2.a) eta 6. puntuetan xedaturikoa.

Horrela bada, informazioa adituta, osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Elizateako eraikina birgaitzeko obra kontratua ASPROSUR BUSINESS, S.L. enpresari esleitzea aurkezturiko proposamenaren arabera.

2.- Lizitazaileei jakinaraztea esleipenaren

*Visto lo dispuesto en los puntos 2.a) y 6 del artículo 101 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos.*

*En su virtud, oída la información, los miembros presentes en el pleno ACUERDAN POR UNANIMIDAD:*

*1.- Adjudicar el contrato de obras de rehabilitación del edificio de la Elizatea a la empresa ASPROSUR BUSINESS, S.L. conforme a la propuesta presentada.*

*2.- Comunicar a los licitadores la suspensión de la*

eraginkortasuna etenda geratuko dela 10 egun naturaleko epean esleipena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

*eficacia de la adjudicación en el plazo de 10 días naturales contados a partir de la notificación de la adjudicación.*

3.- Esleipendunari jakinaraztea, etendako epea bukatu eta biharamunetik kontatzen hasita, 15 egun naturaleko epean kontratua administrazio agirian formalizatuko dela.

*3.- Comunicar al adjudicatario que el contrato se formalizará en documento administrativo en el plazo de 15 días naturales a partir del día siguiente la finalización del plazo de suspensión.*

4.- Esleipendunari jakinaraztea, kontratua formalizatu aitzinetik, plegu arautzaileko 17. klausulan xedaturikoaren arabera, esleipen kopuruaren (BEZa kanpo) %4eko behin betiko bermea paratu beharko duela, hau da, 15.600,00 €.

*4.- Notificar al adjudicatario, con carácter previo a la formalización del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en la cláusula 17 del pliego regulador, deberá constituir la garantía definitiva del 4% del importe de adjudicación (IVA excluido), esto es 15.600,00 €.*

5.- Esleipendunari jakinaraztea, plegu arautzaileko 18. klausulan xedaturikoaren arabera, kontratua formalizatu baino lehenago bertan xedaturiko dokumentazioa aurkeztu beharko duela.

*5.- Notificar al adjudicatario, de conformidad con lo dispuesto en la cláusula 18 del pliego regulador, que con carácter previo a la formalización del contrato deberá presentar la documentación dispuesta en la citada clásula.*

6.- Obraren zuzendaritza fakultatiboa izendatzea kontratu honen arduradun.

*6.- Designar la dirección facultativa de la obra como responsable del presente contrato.*

7.- akordio hau esleipendunari eta lizitazioan parte hartu dutenei jakinaraztea, euren ezaguera eta ondorioetarako.

*7.- Notificar el presente acurdo al adjudicatario y a los participantes en la licitación, para su conocimiento y efectos.*

**3.- Zelena Renovables, S.L.U. enpresak aurkezturiko "Azkua" parke eolikori buruzko udalaren ekarpenak Nafarroako Gobernuko Ingurumen Ebaluazio Atalari helaraztea.**

***3.- Dar traslado a la Sección de Evaluación Ambiental del Gobierno de Navarra de las aportaciones municipales relativas al parque eólico "Azkua" presentado por Zelena Renovables, S.L.U.***

Alkateak arretaz irakurri du Zelena Renovables S.L.U.k "Azkua" parke eolikoaren eraikuntzari buruz aurkeztutako aurretiko kontsultari buruz idatzi duen idazkia.

*El alcalde lee detenidamente el escrito que ha redactado en relación a la previa consulta presentada por Zelena Renovables, S.L.U. sobre la construcción del parque eólico "Azkua".*

Idazki horretan xedatutakoa ekarpenak izan arren, Igantziko udalerriak "Azkua" parke eolikoa ezartzearen aurka egindako adierazpen garbia da. Horri dagokionez, ingurumenarekin eta hirigintzarekin lotutako zenbait alderdi nabarmentzen ditu, Igantzik ez baitu bideragarritzat jotzen planteatzen dituen instalazioak eraikitzea. Hori ez ezik, esku-hartze horrek indarrean dagoen araudia ez betetzea ekarriko lukeela ere

*Lo dispuesto en dicho escrito, si bien se tratan de meras aportaciones, se presenta como toda una declaración por parte del municipio de Igantzi en contra de la implantación del parque eólico "Azkua". A este respecto, resalta diversos aspectos medioambientales y urbanísticos por los que el municipio de Igantzi no ve viable la edificación de las instalaciones que plantean. No solo eso, sino que también recalca que tal*

azpimarratzen du.

*intervención supondría el incumplimiento de la normativa en vigor.*

Udalbatza erabat ados dago idazkiarekin, eta bertan ezarritako guztia berresten du. Halaber, komenigarritzat jotzen dute adieraztea korporazio hau prest dagoela udalerriko edozein gizarte-eragilerekin biltzeko, baldin eta "Azkua" parke eolikoaren izapidetzearen egoerari buruzko informazioa jaso nahi badu.

*La corporación muestra su total conformidad con el escrito y se reafirman en todo lo establecido en el mismo. Asimismo, consideran conveniente expresar que esta corporación está dispuesta a reunirse con cualquier agente social del municipio que desee ser informada sobre el estado en el que se encuentra la tramitación del parque eólico "Azkua".*

Horrela bada, informazioa adituta, osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Así pues, una vez oída la información, los miembros presentes en el pleno, ACUERDAN POR UNANIMIDAD:*

1.- Alkateak idatzitako idazkia Nafarroako Gobernuko Ingurumen Ebaluazioko Atalari bidaltzea, Igantziko Udalak "Azkua" parke eolikoaren aurka egindako ekarpenen zati gisa.

*1.- Remitir a la Sección de Evaluación Ambiental del Gobierno de Navarra el escrito redactado por el alcalde como parte de las aportaciones que realiza el Ayuntamiento de Igantzi en contra del parque eólico "Azkua".*

2.- Igantziko Udalak "Azkua" parke eolikoaren izapidetzearen egoerari buruzko informazioa jaso nahi duen udalerriko edozein gizarte-eragilerekin biltzeko borondatea adieraztea.

*2.- Expresa la voluntad del Ayuntamiento de Igantzi a reunirse con cualquier agente social del municipio que desee ser informada sobre el estado en el que se encuentra la tramitación del parque eólico "Azkua".*

**4.- Bortzirietako Guztiok Taldea Elkarteari dirulaguntza emateko onespena.**

***4.- Aprobación de la concesión de una subvención a la Asociación Bortzirietako Guztiok Taldea.***

Alkateak azaldu du 2024ko martxoaren 25ean Bortzirietako Guztiok Taldea Elkarteak dirulaguntza eskaera aurkeztu zuela. Horrela bada, osoko bilkurak elkarteak egiten dituen ekimenak diruz laguntzeko aukeraren inguruan eztabaidatu du.

*El alcalde expone que con fecha 25 de marzo de 2024 la Asociación Bortzirietako Guztiok Taldea presentó una solicitud de subvención. Así pues, el pleno ha debatido sobre la posibilidad de subvencionar las iniciativas que realiza la asociación.*

Osoko bilkurak aho batez ulertzen du aztergai duten elkarteak egiten duen zerbitzua eta horren garrantzia ukaezina dela. Horri dagokionez, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak egiten duen ekarpen ekonomikoa ikusirik, udalbatzaren iritziz, berrikusi egin beharko litzateke, eta, ahal duen neurrian, emandako zerbitzuaren beharraren araberako ekarpen egokiagoa egitea birplanteatu. Horretarako, gizarte zerbitzuen diru sarrerak egokitzeko bortz

*El pleno entiende por unanimidad que el servicio que presta la asociación y que su importancia es innegable. A este respecto, a la vista de la aportación económica que realiza la Mancomunidad de Servicios Sociales de Bortziriak, esta corporación considera que debería revisarse y, en la medida de lo posible, replantearse una aportación más adecuada a la necesidad del servicio prestado por la asociación. Para ello, si fuera necesario incrementar las aportaciones de*

herrietako ekarpenak handitu beharko balira, ba handitu beharko lirateke, aurrekontu aldaketa bidez edo, gutxienez, hurrengo urteko aurrekontuak egiterakoan honako irizpide hau kontutan hartuz.

*los municipios para adecuar los ingresos de los servicios sociales, deberían incrementarse mediante modificaciones presupuestarias o, al menos, teniendo en cuenta el presente criterio en la elaboración de los presupuestos anuales.*

Horrela ikusten du udalbatzak, uste baitu aztergai duten zerbitzu mota horietarako ez duela zentzu handirik udal bakoitza bere aldetik joateak eremu mankomunatu bat dagoenean.

*Así lo ve el pleno, pues considera que para este tipo de servicios que se plantean no tiene mucho sentido que cada ayuntamiento vaya por separado cuando hay un ámbito de actuación mancomunado.*

Zentzu horretan, idazkariak adierazi du Dirulaguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2.a) eta 28. artikuluetan xedaturikoari jarraiki, zuzeneko dirulaguntza emateko Igantziko Udaleko 2024ko aurrekontuan horretarako partida bat egon beharko litzatekela, baina ez dago horrelako partidarik. Era berean, ohartarazi du dirulaguntza zuzenean ematea hitzarmen baten arautu beharko litzatekeela. Aldiz, 2024ko aurrekontuko 1 2399 4820002 GIZARTERAKO LAGUNTZAK partidan oraindik erabili gabe dauden 1.500,00 euroko kreditua dagoela azaldu du.

*En este sentido, la secretaria indica que de conformidad con lo dispuesto en los artículos 22.2.a) y 28 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, para la concesión de la subvención directa en el presupuesto del Ayuntamiento de Igantzi 2024 debería existir una partida al efecto, partida que no existe. Asimismo, advierte que la concesión directa de la subvención debería regularse en un convenio. Igualmente, explica que en la partida 1 2399 4820002 GIZARTERAKO LAGUNTZAK del presupuesto 2024 hay un crédito de 1.500,00 euros que aún no han sido aplicados.*

Horrela bada, informazioa adituta, osoko bilkurara bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Así pues, una vez oída la información, los miembros presentes en el pleno, ACUERDAN POR UNANIMIDAD:*

1.- Bortzirietako Guztiok Taldea Elkarteak eskaturiko dirulaguntza Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik bideratzea luzerako joanen dela ikusirik, 300,00 euroko dirulaguntza ematea Bortzirietako Guztiok Taldea Elkarteari, zeina Igantziko Udalaren 2024ko 1 2399 4820002 GIZARTERAKO LAGUNTZAK partidatik finantzatuko den. Horrela bada, nahiz eta ez izan kopuru sobera eskuzabala, ekarpen hau asmo adierazpen bat bezala egiten da, elkarteak egiten duen lanagatik udalaren borondate eta esker onak adierazteko.

*1.- En vista de que se podría prolongar la tramitación de la subvención en la Mancomunidad de Servicios Sociales de Bortziriak a la Asociación Bortzirietako Guztiok Taldea, conceder una subvención de 300,00 euros a la citada asociación que se financiará con cargo a la partida 1 2399 4820002 GIZARTERAKO LAGUNTZAK de 2024 del Ayuntamiento de Igantzi. Así pues, aunque no se trate de una cantidad generosa, esta aportación se realiza como una declaración de intenciones para expresar las voluntades y agradecimientos del ayuntamiento por el trabajo que realiza la asociación.*

2.- Igantziko Udalaren konpromisoa adieraztea, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko kidea den aldetik, eztabaida mankomunitatearen hurrengo batzarrera eramateko, Bortzirietako Guztiok Taldea Elkarteak bere beharren araberako dirulaguntza egokiagoa jaso dezan.

*2.- Manifestar el compromiso del Ayuntamiento de Igantzi, como miembro de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Bortziriak, de trasladar el debate del presente tema a la próxima sesión de la mancomunidad para que la Asociación Bortzirietako Guztiok Taldea reciba una*

*subvención más adecuada a sus necesidades.*

3.- Akordio hau Bortzirietako Guztiok Taldea elkarteari eta Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateri jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

*3.- Notificar el presente acuerdo a la Asociación Bortzirietako Guztiok Taldea y a la Mancomunidad de Servicios Sociales de Bortziriak, para su conocimiento y efectos.*

**5.- Alkatearen Ebazpenak.**

***5.- Resoluciones de Alcaldía.***

2024ko 42tik 55era Ebazpenen berri eman da eta UDALBATZAK BERRETSI DITU.

*Se informa sobre las Resoluciones del 42 al 55 de 2024 y el PLENO LAS RATIFICA.*

**6.- Galderak eta eskaerak.**

***6.- Ruegos y preguntas.***

Ez dira egin.

*No se realizan.*

Bertzerik gabe, arratsaldeko 21:00 izanik, bilera bukatutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

*Siendo las 21:00 de la tarde se pone fin a la reunión de la que se levanta la presente certificación de la secretaria, para hacer constar lo que se acuerda.*

**O.E ALKATEA/ *V.B. DEL ALCALDE***

Juankar Unanua Navarro

IGANTZIKO UDALA · IGANTZI - NAFARROA

**IDAZKARIA/ *LA SECRETARIA***

Nagore Madariaga Iriarte